

gzt LEIOA gunea

Aterpe Leioa Gaztegunea erabilera askotarako ekipamendua da. Leioako gazte guztiari dago zuzenduta, eta jolaserako espazioak, ikasteko espazioak, informazio-guneak, topaketarako guneak... jartzen dizkizue eskura.

gaztegunea

Jolaserako eta elkartzeko gunea da. Bertan, lagun berriak egin daitezke, une dibertigarria igaro, tailerretan, ikastaroetan, txapelketetan, lehiaketetan parte hartu, etab. Etxeko pizza prestatzen ikasi nahi duzu? zurea karaokea da? edo, besterik gabe, lagunekin egoteko leku baten bila zabiltza?

Horretarako eta askoz gehiagorako, zain gaituzue Aterpe Leioa Gaztegunean.

ORDUTEGIA

Ostiralak eta larunbatak 17:00etatik 22:00etara


Igandeak 17:00etatik 20:30etara

ikasteko aretoa

Etxean ez zara kontzentratzen! Hozkailura zoazen hirugarren aldia da! Eragozpen horiek edo beste batzuk saihestu nahi dituzu? Aterpe Leioa Gaztegunean 50 pertsonarentzako lekua duen ikasteko aretoa daukagu.

ORDUTEGIA

Astelehenetik igandera, 10:00etatik 14:00etara eta 16:30etatik 20:30etara



gazte informaziorako zerbitzua (giz)

Beken bila ari zara?

Aisialdiko begiralearen titulua izan nahi duzu?

Bidaia bat egin nahi duzu eta aterpeei buruzko informazioa bilatzen ari zara?


Zurea artea da, eta kartel edo bideoklipen lehiaketak interesatzen zaizkizu?

Aterpekide, ikasle edo irakasle agiria izapidetu nahi duzu?

Kontu hauetarako eta beste batzuetarako, hau da zure espazioa!

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara eta 16:30etatik 20:30etara



ordenagailu aretoa

Erne! Ordenagailuak ditugu Interneten nabigatzeko, lanak taldean egiteko...

Eta nahiago baduzu zure eramangarria ekarri, wi-fi bidez ere konektatu ahal izango zara.

elkarteentzako aretoa

Leioako gazte elkarte bateko kide zara eta ez daukazue lekurik elkartzeko?

Elkarteentzako aretoak bilerak egiteko lokalik ez duten Leioako gazte talde eta elkartei laguntzeko espazioa izan nahi du.

Interesatzen bazaizue, etorri Aterpe Leioa Gaztegunera eta informatu zaitezte.

sexualitateari buruzko aholkularitza. leihosex

Zerbitzua isilpekoa eta doakoa da, eta sexualitateari buruz dituzun zalantzei erantzun egoki eta orientazioa emango dizun aditu batek zuzentzen du.

ORDUTEGIA: ostegun bi hilean, 18:00etatik 20:00etara

Helbide elektronikoa: leihosex@hotmail.com

Messenger: sexaholkuak@hotmail.com

Jarraitu:



Aterpe LEIOA gzt gunea

Aldapabarrena, 2
48940 LEIOA
gazte@leioa.net

gaztea bazara
gaztegunea izango zara
irailaren 23tik aurrera